

Astekaria

BARREN

elgoi

C.D. Elgoibar 75 urte futbolean



IRAKASLE

ELKARTEA

ZEZENBIDE



auto-eskola

San Frantzisko 43,
☎ 74 27 20

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

3 LAU HANKATAN

"Jende askorentzat jokaera demokratikoena beti gehiengoak dioena egitea omen da" **Alberto Ansuategi.**

6 ERREPORTAIA: C.D. ELGOIBARREN 75. URTEURRERNA

Elgoibarko futbol kluba sortzeko ideia 1915. urte inguruan gorpuzten hasi zen zenbait elgoibartar futbolzaleren buruan.

8 ARRAZOTIAK ERDIBANA: GAZTETXEA BEHARREZKOA AL DA? NOLAKOA?

Gotzon Arrieta: "Filosofia eta planteamendu berri baten arabe-
ra eraiki beharko litzateke gaztetxea..."

Maidor Elustondo: "Herriko gazteok gure ekimenak aurrera
eramateko toki bat behar dugu..."

12 BERBETAN: Koro Aldaz

"BATZUK EZ DIRA ESKAPARATEEN INPORTANTZIAZ OHARTU"

14 KIROLA

GAIA: MINTXETA: HERRITARREN ZERBITZURAKO PREST.
ELKARRIZKETA: **Javier Egea:** IGERIKETA ESKOLAKO KIDEA

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

ELGOIBARKO UDAL MUSIKA BANDA

17 KULTURA

UDALAK 16 MILIOI GASTATU DITU JAIETAN

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 11 larunbata: **BIDASOLO**
- 12, igandea: **BIDASOLO**
- 13, astelehena: **YUDEGO**
- 14, asteartea: **YUDEGO**
- 15, asteazkena: **YUDEGOO**
- 16, osteguna: **YUDEGO**

17, ostirala: **YUDEGO**

OKINDEGIAK:

- 12, igandea: **EIZAGIRRE**



HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta,
Alberto Agirreazaldeg
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua
Kazetaria
Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementeria
Publizitatea
Nekane Etxaniz
Administrazioa
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste
Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin
Arregi, Belen Arrizabalaga,
Bertso Eskola, Agur Miren
Barandiaran, Hasier Etxeberria,
Maite Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Koldo Lizarralde,
Aitor Lodoso, German
Meabebasterretxea, Jasone
Osoro, Diana Perez de Albeniz,
Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X
elgoi**BARREN**ek ez du bere gain
hartzeko aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.



*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak diruz
lagundutako aldizkaria*

LAU HANKATAN



Alberto Ansuategi

Korrontearen aurka

"En nombre de la lógica condenaría un pueblo de sordos al único que oyera". Unamunoren hitzak omen dira eta, egunero froga daitekeen legez, bizitza bera bezain egiazkoak. Adibiderik behar? Milaka aipa nitzake, baina guziak ezaugarri bakar batetan labur daitezke: gehiengoaren despotismo krudela. Halere, inork ez ditzala nire hitzak gaizki interpretatu, "minorien" eskubideetaz ari naiz, besterik ez.

Jende askorentzat jokoera demokratikoena beti gehiengoak dioena egitea omen da baina, zuzen nazakezue oker banago, nire ustetan hori demokraziaren interpretazio desegokia litzateke.

Lehendabizi, bada egoera bat non gehiengoaren legeak inoiz funtzionatzen ez duen: oinarrizko eskubideetaz ari garenean, hain zuzen ere. Baina oinarrizko eskubideetaz ari ez garenean ere, sarritan gehiengoaren erizpideak ez gaitu konponbide egokienera eramaten. Demagun bost lagun hurrengo bost urteetako udarako oporrak non pasa erabakitzen ari direla. Hiruk mendia nahiago dute,

beste biek hondartza. Beti gehiengoaren nahia beteko balitz, bost urtetan jarraian mendira joango lirateke, baina ez al litzateke "demokratikoagoa" izango hiru alditan mendira eta beste bietan hondartzara joatea? (Edota mendizaleak mendira eta hondartzazaleak hondartzara, noski.).

Beraz, honekin ados bagaude, ofizialak ez diren inizatiba guziak, hots, gehiengoarenak ez direnak, arrazoi huts horrengatik gaitzetsi behar al ditugu? Minoria edo giza-talde marjinalengandik datozelako izateko eskubidea ere ez al dute izango?

Agian abstraktoegia izaten ari naiz. Adibide hauei zuek egunkari, irrati, giza-talde, kultura eta abarren izenak jarri ahal izango zeniezaiekete eta ziur nago balio izango luketela. Halere, arazo zabala denez, era zabal batetan aztertu nahi izan dut.

Badakigu korrontearen aurka joatea neketsuagoa dela, baina nork diosku errekan behera aurkitutakoa errekan gora dagoena baino ederragoa denik?

DEKORAZIOA

Aue

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero

**OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ**

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Elgoibarko argazki zaharren bilduma

Gure iragana oroit araziko digun argazki bilduma bat egiteko asmoa daukagu Elgoibarko Udal liburutegian. Gure asmoa Elgoibarko industri, edifizio, talde, etab... gogora eraziko diguten argazkiak bildu eta sailkatzea da gero album batean biltzeko. Argazkiak zaharrak edo hain zaharrak ez direnak izan daitezke.

Gure ustez, herrian bertan, milaka bilduma edo kolekzioetan aurki daitezke, zalantzarik gabe, gure iraganaren lekukotasun grafiko inte-

resgarrienak.

Lerro hauen bidez, Elgoibarko famili oso gonbidatzen dugu eginkizun honetan laguntzera, honetarako zuei iruditzen zaizkizuen argazkiak utzi besterik ez duzue egin behar.

Argazkiak Udal Liburutegian entregatu ahal izango dira eta interesgarrienak fotokopiatu eta sailkatu ondoren, bakoitza bere jabeari entregatuko zaio zuzen zuzen.

Luzatzen zaizuen eskaerataz egin dezakizuen guztietaz aurrez eskerrak ematen dizuegu.

Udal liburutegia

Mintxeta eta atletismoa

Mintxeta kiroldegia eta inaugurazioko ekitaldiak bukatu ondoren erabiltzeko prest egongo da hemendik aurrera. Elgoibarko futbolzale eta futbolariak badute non jokatu eta zertan goza. Betidanik egon da Elgoibarren futbolerako zaletasuna eta futbol zelai berriarekin gehitzea ere lortuko da.

Futbolari ezer kendu gabe, atletismoa da niri gustatzen zaidan kirola eta badira Elgoibarren beste zaletu asko ere. Orain arte korrika egin nahi izan dugunok bide bazterretan egin behar izan dugu eta gaez trenbide gaineko

pista beltzean. Baldintza oso zailak izan arren gazte asko ibili gara korrika asfalto gainean, auto artean eta, askotan, gaez.

Hemendik aurrera dena desberdin izango dela espero dut. Atletismoko pista ederrak daukagu eta korrika egiteaz gain jauziak ere egin ditzakegu. Entrenamenduetarako erreztasunak behar ditugu eta atletismoko froga interesgarriak antolatzea ere premiazkoa da zaletasuna lortzeko.

Hona bada nire desioa: Bost urte barru 200 elgoibartar biltzea atletismoko probetan. Hortik aurrera markak eta eliteko atletak berez etorriko dira.

Korrikalari bat



HIZKUNTZ IKASTAROAK 1993-94 ikasturterako matrikula



HIZKUNTZAK Alemana, Frantsesa, Ingelesa

MAILAK Oinarrizkoa, Erdi-mailakoa, Aurreratua, Teknikoa, Komertziala, Itzulpena (Eskaeren arabera)

IRAUPENA 1.993ko irailaren 27tik
1994ko ekainaren 24ra

ORDUTEGIA 17:30-19:15 eta 19:15-21:00

IRAKASLEGOA Natiboa

IKASLEGOA 15 urtetik gorakoa

MATRIKULA Irailak 27a arte

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

Erraminta Makina Institutua
Hizkuntz saileko arduraduna

San Roke Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Tel.: (943) 74 41 32 - Fax: (943) 74 41 53
9:00 - 13:00 14:30 - 17:30



Aste honetako erretratua **Jesus Rementeriak** lagatakoa da. Berak esan digunez, erretratua 1948. urtean ateratakoa da.

Garai haietan futbol liga bat egiten omen zen Plaza Txikian herriko ekipoen artean. Ekipoak kuadrila berdineko lagunek osatzen zuten eta argazkikoa kuadrila baten zatiketarik irtendakoa da. Taldearen izena "Los Txiribiri" zen eta kuadrilakoen beste taldearena "Los Desastre".

Orduan ez zen belarrak naturala edo artifiziala

izan behar zuen eztabaidatzen, harri, banku eta zuhaitz artean mugitu behar izaten zuten baloia. Elgoibartar futbolisten kantera zaharra kotxeek lurperatu dute.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen zuten "Los Txiribiri" taldea: ezkerretik eskumara, goitik behera:

Ignacio Mugerza "Ruso", Xabier Argarate, Ignacio Gabilondo "Txiron", Paco Mugerza (atezaina), Felix Aiesta, Vicente Unzilla eta Jesus Rementeria.



**ZALDUA
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

C.D. Elgoibar Kirol Elkartearen 75. urteurrena

**C.D. Elgoibar Kirol
Elkartek 75 urte
betetzen ditu
aurten.
Herritarrontzat,
ospakizun
garrantzitsua
izanda, klubari
buruz zerbait jakin
nahian, datozen
lerroetan
idatzitakoa jaso
ahal izan dugu
klubaren
ordezkarien
eskutik.**



AZKUE

↳ C.D. Elgoibar elkartearen futbol taldea 1930. urte inguruan.

Elgoibarko futbol kluba sortzeko ideia 1915. urte inguruan gorpuzten hasi zen zenbait elgoibartar futbolzaleren buruan. Urte hartan bertan, lagun talde batek futbol taldea osatu zuen eta bi urte beranduago, 1917.ean, federatu egin ziren. Federazioa bera ere urte horretan sortu zen. 1917. urteko talde hura, C.D. Elgoibar elkartearen lehendabiziko futbol taldea izan zen. Jokalariak, futbol zelaiko zereginaz gain, kluba-

baren ordezkapen eta zuzendaritza lanak bete behar izaten zituzten. Klubaren finantzaketa, bazkide batzuren laguntzaz, beraien kontu zeramatena. Lehen presidentea Demetrio Vallejo izan zen eta jokalaria eta zuzendaritzako kideak, denak ez badaude ere honoko hauek ziren: Sebastian Unzila, Jose Ansola, Juan Etxaniz, Ricardo Astigarraga, Silvestre Ziaran, Rufino Unzueta, Ildefonso Zabaleta, Demetrio Vallejo, Prudencio Etxaniz, Satur Unzilla,

**C.D.aren 75
urte hauetan,
jokalaria asko
eta asko
herriko futbol
taldetik,
maila
goragokoetako
futbol
taldeetara
joan izan dira
jokatzera.**

Doroteo Rementeria...

Hasiéran, San Roke auzoko "Azkubé" futbol zelaian jokatzen zuten futboleant; gero 1925-26 denboraldian, Lerungo futbol zelaia estreinekoz zapaldu zuten eta aurten, Leruni agur esan eta Mintxetako futbol zelaian jokatzen hasi dira.

Futbolaz gain, txirrindularitza eta atletismoa zeuden C.D.ren baitan. Atletismoan hainbat txapeldun eman zituen C.D. Elgoibarrék: Juan Ansola disko

● *Inazio Bereziartua Musikeskola* ●

Solfeo, Koral, Instrumentu eta Dantza ikastaroak irailak 13an hasiko dira

- Solfeo, koral eta dantzarako ikasleen zerrendak Plaza Txikian eta Merkatu Plazan daude.
- Instrumentu klaseen egunak eta ordutegia astelehenean 5etan erabakiko dira ikasgeletan.



jaurtiketan Espainiako txapelduna 1917. urtean, Javier Aizpitarte jabalinaran Gipuzkoako txapelduna eta disko jaurtiketan Espainiako txapelduna 1928. urtean, Ignacio Izagirre Espainiako txapeldun 7 alditan pisu jaurtiketan, 2 aldiz jabalinaran eta 4 aldiz disko jaurtiketan, Juan Landa Gipuzkoako txapelduna "tripe salto"an eta luzera jauzian eta Juan Mugerza Espainiako txapelduna 30 aldiz distantzia ezberdinetan.

C.D. Elgoibar kirol elkartearen 75 urte hauetan, jokalaria asko eta asko herriko futbol taldetik, maila goragokoetako futbol talde-
etara joan dira jokatzera. Guztien izenen zerrenda ematea ezinezkoa bada ere, aipatu, bederen, internazional izan diren elgoibartarrak: Fernando Ansola (Oviedo, Valencia eta Erreal), Jose Arakistain (Erreal eta Rela MAdrid), Tiburcio Beristain (Alaves, Erreal eta Zamora atezain ospetsuaren ordezkari Espainiako selekzioan) eta Juan Cruz Sol (Valencia eta Real Madrid).

Gaur egun, Iñigo Arriola eta Luis Fernando Rodriguez elgoibartarrak Eibar taldean ari dira eta Joseba Etxebe-



➔ C.D. Elgoibar Kirol Elkartearen futbol taldea gaur egun.

**Gaur egun
C.D. Elgoibar
elkartearen
barruan
futboleko
bost talde eta
eskubaloiko
hiru talde
daude.**

rria, Mikel Elgoro-Iribe, Josu Ibarra, Eugenio Caro eta Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak Errealean, jubenilen taldean jokatzeko dihardute.

C.D. Elgoibarko taldeak, Haundik, futbol ligako 3. mailan jokatu izan du ia beti. Gauza guztietan bezalaxe, ordea, momentu txarrak eta onak ere izan ditu. Haundik "preferente" izeneko mailan jokatu izan du momentu txarrean egon izan denean eta ligako 2.B mailan, berriz, azken aldiz iaz, momentu gorenean egon izan denean.

Gaur egun C.D. Elgoibar

elkartearen barruan futboleko 5 talde eta eskubaloiko 3 talde daude. Futboleko, 3. dibisioan, 2. errejonalean, jubenilen Ohorezko Ligan, lehen mailako kadeteetan eta infantilen Ohorezko ligan talde bana dabil jokatzeko eta eskubaloian, senior mailan neska taldea, jubeniletan mutil taldea eta kadeteetan beste mutil talde bat ari da jokatzen. Duela 4 urte sortu zen C.D. Elgoibar elkartearen baitan eskubaloiko taldea. Eskubaloian ez ezik futboleko ere nesken talde bat sortzekotan dabilza C.D.koak. Agian datorren urtean.

CAFE
Puff
TEATRO
Pub PELOUSE
San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

INTERIORES
- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB
LAZANZ
elgoibar

Gaztetxea behar al da? Nolakoa?

Hamabi urte inguru jo beharko genuke atzera gaur egun jasaten ari garen gatazka honen iturriak aztertzeko. Egia esan, ez deritzot konponketa aldetik gauzak asko aurreratu direnik, orduan eta gaur dirauten planteamentuek ez baitute inolako ezberdintasunik.



Urte haietan sorturiko mugimendua-ren eta Udaletxearen eta Udaletxearen artean somatu zen planteamentuen arteko enfrontamendua areagotu baino ez da egin urtean barrena. Jakina, gauzek txarrera jo duten heinean irtenbideak are zailagoak iruditzen zaizkit, ez hala ere ezinezkoak.

Gauzak gaur egun dauden bezala egonik ez dut uste irtenbide asko gelditzen denik. Printzipioz, filosofia eta planteamentu berri baten arabera eraiki beharko litzateke gaztetxea, hor bailegoke irtenbide horren muina.

Bi puntu nagusitan oinarrituko nuke gaztetxeak izan behar lukeena: lehenengo eta behin, barne funtzionamenduari bagagozkio elkarte finkatu bat legez eratu beharko litzateke beste hainbat funtzionatzen duen bezala, programa eta

aurrekontu bat aurkeztuz, estruktura konkretu bat onartuz, dago-kion erantzunkizuna bereganatuz e.a.

Bigarrenik, gazte guztiak batu behar litzatekeen zerbaitek behar izan. Badakit topiko bat dirudiela baieztapen honek baina pluralismo garbi baten beharra ikusten du oinarrian. Alegia, hau izango litzateke benetako gaztetxe baten oinarrikeria sendoa. Gaur egun, zoritxarrez, ezinezkoa da pluralismo hori gauzatzea baldin eta ideologia eta jokaera konkretuek berez gaztetxeak izan behar lukeren filosofia gaintitzen badute.

Dena den, hau nire iritzia baino ez da. Batzuk nirekin egongo zarete eta besteok ez. Bizitzaren legea.

Gotzon Arrieta



Gaztetxea, bai, noski, guk beharrezkotzat kontsideratzen dugu herriko gazteen %85a baino gehiagok bezala, Udaletxeko inkestek bere garaian argi eta garbi adierazi zutelarik.

Herriko gazteok gure ekimenak aurrera eramateko toki bat behar dugu, eztabaida eta edozein motatako ekin-tza eta ekitaldi burutzeko (atsegingarriak, kulturalak, elkartasunezkoak eta sozialak,...).

Pixkanaka gure egunerokotasuna aldatzen ikasteko topalekua, harreman jatorrak landuz, sexismoarekin, kontsumismoarekin, inposaketekin, drogomenpekotasunekin... amaitzen saiatuz.

Instituzioek eskaintzen diguten kultur aukera murrizta, aspergarri, huts eta bizimodu estereotipatuaren aurrean izaki pasiboak izateari uko egiten diogu.

Arlo guztietan aktiboki parte hartu beharra ikusten dugu, are gehiago, ezertarako kontutan

hartzen ez gaituztela ikusiz.

Guzti honengatik eta beste arrazoi askorengatik gazte-entzako lokal baten beharra ikusten dugu. Guregatik eta guretzat eginiko gaztetxea, autoorganizatu eta irekia. Ordaindu gabe egon, izan, jolas, irakurri, musika entzun, hitz egin, lan egin, ideiatu, aluzinatu, barre eta negar egin... genezakeen leku bat.

Zulo beltz den herri honetan ikusten dugun alternatiba bakarra, non protagonista zu zeu zaren, gazte.

Maider Elustondo
(Gazte Asanbladako kidea)

ETA ZURE USTEZ?

Gaztetxea behar al da? Nolakoa?



Ane Gurrutxaga
22 urte, ikaslea

Neri ez jata gaizki iruditzen Gaztetxe bat eukitzia herrixan, baina lokalak herri guztianak dira, eta horregatik ezin gera hasi bakoitza lokal bat hartzen.



Ivan Gurrutxaga
19 urte, gruako langilea

Izenak dion bezala gazte-entzako leku bat izan behar du eta ez lehen zegoena. Adibidez, Bergarakoa aluzinantea da. Adin guztietako jendea sartzen da.



Jesus Gomez

28 urte, kristal garbitzailea
Gaztetxea behar dugu Elgoibarren. Elkarrizketa egon behar da bi aldeen artean, eta biek piska bat flexibleagoak izan behar dute.



Arrate Aranguren
47 urte, etxekoandrea

Nik uste dot Gaztetxe bat bihar dala herrixan. Elkar-te guztiak bezela, erres-pontsabilitate batzuk hartu biharko leukete.



Tere Lodoso

67 urte, etxekoandrea

Nik ez daukat gazterik etxean baina ondo ikusten dut gazteak elkartzea. Gaztetxea ondo dago baina ondo konportatzen ikasi dezatela.



Ander Modamio

27 urte, eraikuntzako langilea
Inkesten arabera gazteen %85ak nahi du Gaztetxea. Baina kalean ez da hori isladatzen. Gatazka egoera dela eta etxean oztopoak jartzen dituztelako agian.

JAUREGI

INPRIMATEGIA



KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko, 20.
Tel: 74 13 29

I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

FADEK
SOLARIUM

Erosario. Kalea, 35 behe
☎ 74 26 92 Elgoibar

BUZONEOA / KOTXEAK / KARTELAK
POSTA KOMERTZIALA



PUBLIZITATE BANAKETA
ETA PRODUKZIOA

PABLO
LOZANO MORA

San Frantzisko, 56
☎ Ofizina 74 36 42
☎ Etxea 74 38 69

LANBROA



LANBROA

Deba beheari buruzko gidak

Debegesa eta Debemen erakundeek Deba Beheko Udaletxe guztiekin batera, gure eskualdeari buruzko hiru gida argitaratu dituzte. Helburua Deba Behearen ezaugarriak erakutsi eta kanpotarrei begira, interesgarriak ezagutzera ematea da. Ermua, Elgoibar, Soraluze eta Mendaro inguruetako ibilaldiei buruzko gida ere argitaratu dute. Gida hau eskuratu nahi duenak Kultur Etxeko Kultur Zerbitzura jo dezake.

Mintxetako kafetegia

Mintxetako Udal Kiroldetik kafetegiaren ustiapen eta instalazioen mantenuaz kargu egiteko proposamenak hilak 20an aurkeztu ahal izango dira beranduenez Udaletxeko Idazkaritzan. Lehiaketara aurkeztu ahal izateko baldintzen zerrenda Idazkaritzan bertan daude eskuragai nahi duen guztiarentzat.

Kafetegiaz gain, kotzesioduna garbiketaz, futbol zelaiaren mantenuaz, argiteria sistemaz eta Kiroldegiaren itxiera eta irekieraz arduratu beharko da.

Bandaren kontzertua

Larunbat honetan, udako kontzertu saioarekin jarraituz, Elgoibarko Udal Musika Bandak, kontzertu bat eskainiko du Udaletxeko arkupe-etan gaueko 10etan. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honoko bost obra hauek joko dituzte: "El Capitan", "La Reina de Saba", "Danzas Fantasticas", "Clotilde de Nevers" eta "Garijo".

San Migel auzoko pilotalekua inauguratuko da igandean


San Migel bailarako auzokideek "Murkaikupe" pilotalekua inauguratuko dute igande honetan. Iragan berri den abuztuan egin dira frontoi inguruan eta ermita eta elkartean azken ikutu eta berrikuntzak. Frontoiaren estreinaldia ospatzeko, egitarau berezia prestatu dute. Eguerdiko 11etan meza ospatuko da auzoko ermitan. 12etan, pilotalekuaren inaugurazioari hasera emango zaio agintariak bertan egongo direlarik eta Haritz Dantza taldearen laguntzarekin. Segidan, bertsolari eta trikitilariak giroa alaituko dute. Eguerdiko 12,30etan frontoian, eskuzko pilota partiduak jokatuko dira. Afizionatuen mailan *Ansola-Altzibar* bikoteak *Maguregi-Etxaniz* bikote-

aren aurka jokatuko dute. Profesionalen mailan, beste pilota partidu bat jokatuko da *Koka-Aldazabal* eta *Arteaga-Oliden* pilotarien artean.

Anaiarteko bazkari batekin jarraituko dute jai eta arratsaldeko 5etan hasiko den *Maixa eta Itziar* trikitilarien erromeriarekin emango zaio bukaera jai egun honi.

Auzolana

"Murkaikupe" frontoia eraikitzeke asmoa 1983 urtean jaio zen. Auzoko asanbladan Udaletxeari eraikitze lanekin hasteko baimena eskatzea erabaki zuten. Honela, hainbat urtetan auzokoen diru eta lanarekin igandean inauguratuko den frontoi bukatu ahal izan dute.



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89



XABIER
ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



TABERNA



Mintxetako inaugurazio egunean bi elgoibartar gazte hauek, Joseba Etxeberria eta Mikel Elkoro-Iribe, Errealak eta Athleticcek jokatu zuten partiduaren protagonista izan ziren. Berdinketaz bukatu zen partiduan, elgoibartarrak Errealaren aldeko bi golak sartu zituzten. Aitonaren tradizioari jarraituz, lehen gola, (Ipuruako inaugurazioan Etxeberriaren aitona sartu zuen lehenengo gola) Joseba Etxeberriak sartu zuen eta bigarrena Mikel Elkoro-Iribek, biak lehen zatian. Bi gazte hauek Errealeko jubenil taldean jokatzeko dute eta denboraldi hau ondo baino hobeto hasi dute.

3. adinekoentzako Errioxara txangoa

Datorren asteazkenerako, hilak 15, Errioxara txangoa antolatu du Zaharren Biltokiak. Izena emateko azken eguna bihar izango da eta ordutegia goizeko 10etatik 12etara bitartean. Izena ematerakoan bazkide txartela erakutsi beharko da. Txangoaren irteera ordua goizeko 8,30ak izango da.

Elgoibarko argazki zaharren bilduma

Udal Liburutegia herriaren iraganaren lekuko diren argazki zaharren bilduma egiten ari da. Dagoeneko, bilatze eta sailkatze lanetan hasiak dira liburutegiko arduradunak eta Elgoibarko familia guztiak eginkizun horretan laguntzera animatu nahi dituzte bakoitzak bereak diren argazkiak bertara eramanaz. Argazki interesgarriak fotokopiatu eta sailkatu ondoren bere jabeari itzuliko zaizkio.



KENSINGTON

93-94 IKASTURTEA Irailak 15 etik aurrera
Ingeles eta frantseserako matrikulazio epea zabalik!

Mailak:

1. mailatik (oinarrizkoa) 11. mailara (aurreratua).
 Sarrerako azterketaren arabera.

Taldeak:

- Mintzamen praktikak,
- Kanpo komertzioa,
- Itzulpena (bi hizkuntzetara),
- Literatura,
- Azterketa ofizialak (PET, London University eta eskola ofiziala),
- Oinarrizko mailak haurrentzat.

Ordutegia:

Goizez-arratsaldez-gauetz (egunero edo astean egun batzuk). Intentsiboak.

Adina: Adin guztiak.

9 urtetik beherakoentzat talde bereziak

Asistentzia agiriak emango dira.



GIPUZKOAKO
 HIZKUNTZ IRAKASLE
 ELKARTEKO BAZKIDE

P. Muguruza 8.
 Tel.: 74 02 36

"Batzuk ez dira ohartu eskaparateen inportantziaz"

"Gure artean, askotan hitz egiten dugu kaleen eta herriaren itxuraz, baina agian, gutxitan ohartzen gara, dendetako eskapareteek irudi horretan duten inportantziaz.

Koro, profesional bat da diseinu mota honetan eta zenbait gauza azaldu dizkigu, hala nola, eskaparate batek, %40ko eragina duela komertzio baten salmentetan".

-Zergatik da hain inportantea eskaparatea?

-Eskaparatea, komertzioaren lehenengo irudia da eta gauza asko hausnar ditzakegu denda horren produktuetaz, itxuraz eta gustuaz. Jendeari gauzak txukun eta garbi gustatzen zaizkio. Horrela, ondo apaindutakoak, salmenten %40a suposa dezake.

-Noiz eta nola hasi zinen?

-16 urterekin Donostia-ko denda handi batean hasi nintzen lanean. Beti izan naiz oso "manitas" eta bertako ugazabak eskaini zidan eskaparista bezala jarraitzea. Profesional baten laguntzaz, asko ikasi naban, zeren eta dendak denetik saltzen zuen eta demaseko eskapareteak zituen.

-Zein sektore ezberdin daude?

-Lokal handien edo izen inportanteen tratamendua ezin da konparatu txikiekin. Almazen handiak eskaparatismo kanpaina bat sortzen dute eta denda guztietan mantentzen dute, profesional berberekin. Adornoak aldatzen dituzte eta mugimendua eta soinua sartzen dute, hau oso zaila da denda txikientzat. Orain



"Eskaparatea, komertzioaren lehenengo irudia da eta gauza asko hausnar ditzakegu denda horren produktuetaz, itxuraz eta gustuaz."

bertan, superfizie handiak, txikiak jaten ari dira. Azken hauek inportantzia handia eman behar diote daukatenari, jendearekiko tratuari eta azken finean, produktuak ondo saltzeari.

-Zein elementu erabiltzen dituzu eta zein aldatzen dira?

-Nik materiale apalak erabiltzen ditut, hala nola, papera, pinturak, lorak... Gero gauza askotara egokitu behar da: lehenik, noski, presupuestora eta gero, tamainara eta produktuetara ere bai. Batzuk

errazagoak dira, esaterako lurrinak eta pastelak. Azkenik, argira egokitu behar da, hau oso elementu inportantea baita.

Aldiari dagokionez, nik bezero nahiko finkoak ditut. Deitzen didatenean joaten naiz, produktu berriak dituztenean. Bestela, berri bat zabaltzen denean eta ugazabak oraindik ez duenean ideia asko, nire lana hor hasten da eta gero, beraiek nahi dutenean. Ideala 15 edo 20 egun, edo gehienez hilabete, pasa aurretik

aldatzea litzateke. Baina hemen, gauza berriak eta diferenteak edukitzea eragin asko du. Kontutan hartu behar da askotan aldatuz gero, agian ez zai-zula errentagarria izango eskaparatea. Oso inportantea da harremana bezero eta profesionalaren artean lana ona eta eraginkorra izateko.

-Zure egitekoan modak al daude?

-Bai, noski. Orain adibidez, linea irekiak itxiak baino gehiago eramaten dira. Hau da, hutsune asko utzi, produktu gutxi eskapareteetan eta denda barrua, bistan egon dadila. Gaur egungo sariak horrelako diseinuei ematen zaizkie.

-Nola ikusten duzu maila honetan Elgoibar?

-Nabaritzen da jendea gero eta interesatuago dagoela. Noizean behin, antolatzen ditugun kurtsi-loatara jende asko dator eta hori, gero kalean, igartzen da. Beste batzuk, oraindik, ez dira ohartu eskaparateen inportantziaz, baina, gauzak, poliki, poliki, egiten dira. Herriaren maila igotzea inportantea da, bai dendarientzat eta orokorrean, herri osoarentzat.

Myriam Aldazabal

Miren Lurdes Arozena

Liburutegikoa



- **Zenbat bazkide ditu liburutegiak?**
- 2.100 eta oraindik ez dugu nahi beste lortu.
- **Zein da helburua?** - Liburua jendeari hurbiltzea.
- **Bizitza al da libururik onena?**
- Bai, baina liburuekin ere asko ikasten da, asko.
- **Zein da gehien irakurtzen den generoa?** - Nobela amerikarra, dudarik gabe. Klasikoak inork ez ditu begiratzten.
- **Eta erotikoak?** - Oso gutxi. Oraindik ere jendeari korte handia ematen dio.
- **Poesia irakurtzeko ze autore gomendatuko zenuke?** - Hernandez, nere bizitzako poeta da.
- **Zein mailatan dago euskal literatura?** - Jaurlaritzak, argitaratzen diren liburu gehienak bidaltzen dizkigu, baina euskaltegietan daudenek ezik ez ditu ia inork irakurtzen.
- **Eta haurrek?** - Hauek bai. Dena euskeraz. Gaur egun ez ditugu erdal ipuinik erosten.
- **Umeen artean ba al dago zaletasunik?** - Mordo bat, egunero ipui ezberdin bat irakurtzen dutenak daude.
- **Fonotekak nolako harrera izan du?** - Ideia oso ona da, diska dexente daude: klasikoa, rock-a... Baina gutxi etortzen dira, ez dakigu nola bultzatu.
- **Ikasteko gela bat ere badago.** - Bai, "Kapila" deitzen diogu. Gainezka egoten da, eta oso giro majoa sortzen da beraien artean.
- **Egin al da pelikula onik liburuetan oinarrituta?** - Bai, "El nombre de la rosa" adibidez.
- **Eta alderantziz?** - Jende askok eskatzen digu "Instinto básico" edo "pretty woman". Pelikula famatuen ondoren eginiko liburuek arrakasta handia dute.
- **Zein da bizi nahi zenukeen istorioa?** - Delibesek "Mujer de rojo sobre fondo gris" idatzi zuen emaztearen omenez. Norbaitek horrelako maitasun istorio edo poesia bat niri idaztea gustatuko litzaidake.
- **Nolako amaierak gustatzen zaizkizu liburuetan?** - Rosa, rosa. "...betirako elkarrekin eta oso oso pozik bizi izan ziren."

Jasone Osoro

BERTSOTAN

BERRIRO ERE IKASTOLARA

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Laister batean berriro ere ikastolaraino juan lagunak eta irakasleak izango ditut onduan liburu danak besapean da motxila berriz lepuan ikastolara itzuli behar irailaren hamahiruan. (Bis)

Uda garaia bukatu zaigu honenbestekin akabo Gabonetara iritsi arte opor gehiago ez dago egia esanda guztiok ere penatu gera zeharo oporraldia pasatu bait da guk nahi baino arinago. (Bis)

Alberto Gonzalez



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



3. adinekoentzako gimnasia berriro martxan

Datorren astelehenean, hilak 13, hirugarren adinekoentzako gimnasia klaseak hasiko dira berriro. Lehenago ere gimnasia saio honetan parte hartu izan duenak edota esperientzia berri hau ezagutu nahi duen edozein edadetuk Olaizaga Kiroldegira jo beharko du hilaren 13an arratsaldeko 4,30etan.

Eskubaloiko hiru talde arituko dira aurtengo denboraldian

Elgoibarko " K.E.-C.D. Eskubaloi Taldea"n hiru taldek jokatuko dute aurtengo denboraldian: Kadete mailako mutil taldea, jubenetako mutil taldea eta 2. maila nazionalean jokatuko duten senior neska taldea.

Entrenamenduei irailean ekin zioten hiru taldeek eta hilabete honetan egunero entrenatzen ari dira denboraldia hasten denean prest egoteko.

Larunbat honetan bertan jubenetako mutil taldeak lagunarteko partidu bat jokatuko du Eibarko Kondia taldearen aurka. Norgehiagoka goizeko 11etan hasiko da Olaizaga kiroldegian.

 Javier Egea:

Igeriketa eskolako kidea

-Noiz hasi zinen igeriketa eskolan? -Orain dela bi urte edo. Nire amak apuntatu ninduen.

-Gustora al zabilta? -Bai.

-Igeriketa eskolan ikasi duzu igerian ala lehenagotik zenekien? -Lehenagotik. Hemen Polikiroldegirik ez zegoenez Eibarrera joaten nintzen ikastera eta han ikasi nuen.

-Zer ikasi duzu orduan igeriketa eskolan? -Hobeto igeri egiten eta igeri egiteko dauden estilo diferenteak ikasi ditut. Ze, nik "croll" eta atzerazka bakarrik nekien eta eskolan "mariposa" eta "brazza" ikasi ditut.

-Lau estilo horietatik zein gustatzen zaizu gehien eta zein gutxien? - Gehien "croll" deitzen dena, beste estiloekin baino azkarrago igeri egiten delako. Eta gutxien "mariposa"; oso zaila da.

-Zein txapelketatan ibili zara? - Herrien arteko txapelketetan; toki askotan: Azpeitian, Oñatin, Ondarrun...

-Eta zein emaitza lortu dituzu? - 100 metrotan "croll"ean bigarren postua egin izan dut, atzerazka eta "brazza"n lehenengoa, 400 metrotan "croll"ean lehena eta "estilos" deitzen den lasterketan, lau estiloetan igeri egin behar da, lehena ere bai.



-Igeriketan aurrera segitzeko asmorik? - Ez dakit. Ez dut inoiz pentsatu. Ona banaiz, aurrera jarraituko dudala uste dut.

-Zein asmo daukazu aurtengo denboraldirako? - Hilaren 14ean hasiko gara igeriketan eta joan zen urtean bezala arituko naiz. Bueno, ahal baldin bada joan zen urtean baino postu hobekak lortzen ahaleginduko naiz.

-Arraina izatea gustatuko litzaizuke? - Ez!

-Zergatik? - Arrantzale bat etortzen bada...

-Uretako beste kirolik egiten al duzu? - Ez. Futboleko ibiltzen naiz. Waterpolo asko gustatzen zait baina Elgoibarren ez dago kirol hau praktikatzeko aukerarik.

● Adina: 12.

● Distantziarik egokiena? Luzeenak.

● Itsasoa ala igerilekua? Igerilekua..

● Idolorik? Ez.

● Denbora librean? Futbola eta bideojokuak.



GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiatzzen gara
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

HISPANIA  **ZURICH**

C. Romera

Mota-guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artetale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

Mintxetako Udal Kiroldegia: herritarren zerbitzurako prest

Jendez gainezka zegoela inauguratu zen asteazken arratsaldean Mintxetako Udal Kiroldegia. Bertan ikusi ahal izan ziren kirol frogetan elgoibartarrak izan ziren nagusi eta antolakuntza aldetik dena ezin hobeto burutu zen.

Arratsaldeko

zazpirak aldera Jose Ignacio Elkoro-Irbe alkateak, Gipuzkoako Aldun Nagusiarekin eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin batera Mintxetako kirol instalakuntzak inauguratu zituen. Ekitaldian, Haritz Dantza taldeak eta Udal Bandak hartu zuten parte. Atletismo lasterketei dago-kionean, Ego-Tokiko korrikalariak ezin hobeto aritu ziren. Agurtzane Arriolak 100 metrotako lasterketa irabazi zuen eta bere ahizpa Junkal seigarren sartu zen helmugan. 800 metrotan, Carmen Perea 5. postuan sartu zen eta Isabel Ruiz 9. enean. Alberto Revueltak momentu onean dagoela erakutsi zuen 1.500 metrotan lehe-

na helmugaratu baitzen. Javier Santamariak, berriz, 5. postua lortu zuen.

Ondoren Eibar eta Elgoibar taldeen arteko partidua jokatu zen. Elgoibartarrak 2 eta 1eko emaitzaz gailendu ziren. Dirudenez, Arrateko Ama ez zen eibartarrekin behar bezala portatu.

Instalakuntzen erabilera

Astelehenetik aurrera Mintxetako Udal Kiroldegia herritarren erabilerarako zabalik egongo da. Momentuz futbol zelaia eta atletismo pista baino ezingo dira erabili, izan

ere, gimnasioa hilaren bukaerarako egongo baita prest.

Mintxetara sartzeko ez da sarrerarik ordaindu behar baina zenbait zerbitzu erabiltzeko alogera-prezio bat ezarriko da. Herriko elkarte eta klub guztiek dohainik erabili ahal izango dituzte instalazioak eta alogera-prezioa klubetako kide ez direnentzat izango da. Futbol zelaia osorik edo erdia aloka daiteke edota atzeko aldeko 40x20ko futbitoko zelaia ere bai.

Atletismo pistari dago-kionean, erabilera dohainikoa izango da guztiontzat.

Dena den, Udala Ego-Tokikoentzat araudi bat prestatzen ari da korrikalarietako oztoporik gabe entrena dezaten.

Aldagelak ere doan erabili ahal izango dituzte Klubetako kideek eta herritarrek zerbait ordaindu beharko dute.

Instalakuntzak erabili ahal izateko ezarriko diren prezioak oso merkeak izango dira eta beharbada Kiroldegiko bazkide direnentzat, prezioak zertxobait merkeagoak izango dira. Mintxeta barrura ezin-go da ez txakurrik ez bizikletarik sartu.



Asteazken arratsaldean inauguratu zuten Mintxetako Udal Kiroldegia.

AZKUE

UDAL DEBABE
EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
 NAFARROA ENPARANTZA, 2
 74 27 31
 20870-ELGOIBAR

EMAN GOGOR

EUSKERA ZURE ESKU DAGO

- 93/94 ikasturteko matrikula irekita irailaren 24 erarte
- Laguntza bereziak: langabetu, jubilatu eta ikasleek matrikula erdia
- Bekatze sistema aparta

Orbea
Kafetegia
 San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

Mintxetako Udal Kiroldegia: herritarren zerbitzurako prest

Jendez gainezka zegoela inauguratu zen asteazken arratsaldean Mintxetako Udal Kiroldegia. Bertan ikusi ahal izan ziren kirol frogetan elgoibartarrak izan ziren nagusi eta antolakuntza aldetik dena ezin hobeto burutu zen.

Arratsaldeko

zazpirak aldera Jose Ignacio Elkoro-Irribek alkateak, Gipuzkoako Aldun Nagusiarekin eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin batera Mintxetako kirol instalakuntzak inauguratu zituen. Ekitaldian, Haritz Dantza taldeak eta Udal Bandak hartu zuten parte. Atletismo lasterketei dago-kionean, Ego-Tokiko korrikalariak ezin hobeto aritu ziren. Agurtzane Arriolak 100 metrotako lasterketa irabazi zuen eta bere ahizpa Junkal seigarren sartu zen helmugan. 800 metrotan, Carmen Perea 5. postuan sartu zen eta Isabel Ruiz 9. enean. Alberto Revueltak momentu onean dagoela erakutsi zuen 1.500 metrotan lehe-

na helmugaratu baitzen. Javier Santamariak, berriz, 5. postua lortu zuen.

Ondoren Eibar eta Elgoibar taldeen arteko partidua jokatu zen. Elgoibartarrak 2 eta 1eko emaitzaz gailendu ziren. Dirudenez, Arrateko Ama ez zen eibartarrekin behar bezala portatu.

Instalakuntzen erabilera

Astelehenetik aurrera Mintxetako Udal Kiroldegia herritarren erabilerarako zabalik egongo da. Momentuz futbol zelaia eta atletismo pista baino ezingo dira erabili, izan

ere, gimnasioa hilaren bukaerarako egongo baita prest.

Mintxetara sartzeko ez da sarrerarik ordaindu behar baina zenbait zerbitzu erabiltzeko alogera-prezio bat ezarriko da. Herriko elkarte eta klub guztiek dohainik erabili ahal izango dituzte instalazioak eta alogera-prezioa klubetako kide ez direnentzat izango da. Futbol zelaia osorik edo erdia aloka daiteke edota atzeko aldeko 40x20ko futbitoko zelaia ere bai.

Atletismo pistari dago-kionean, erabilera dohainikoa izango da guztiontzat.

Dena den, Udala Ego-Tokikoentzat araudi bat prestatzen ari da korrikalarietako oztoporik gabe entrena dezaten.

Aldagelak ere doan erabili ahal izango dituzte Klubetako kideek eta herritarrek zerbait ordaindu beharko dute.

Instalakuntzak erabili ahal izateko ezarriko diren prezioak oso merkeak izango dira eta beharbada Kiroldegiko bazkide direnentzat, prezioak zertxobait merkeagoak izango dira. Mintxeta barrura ezin-go da ez txakurrik ez bizikletarik sartu.



Asteazken arratsaldean inauguratu zuten Mintxetako Udal Kiroldegia.

AZKUE

UDAL DEBABE
EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
 NAFARROA ENPARANTZA, 2
 74 27 31
 20870-ELGOIBAR

EMAN GOGOR
EUSKERA ZURE ESKU DAGO

- 93/94 ikasturteko matrikula irekita irailaren 24 erarte
- Laguntza bereziak: langabetu, jubilatu eta ikasleek matrikula erdia
- Bekatze sistema aparta

Orbea
Kafetegia
 San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

16 milioi gastatu ditu Udalak jaietan

Jaietako erresakak atzean laga ondoren gertatutakoaren azterketa egiteko ordua etorri da. Aurtengo jaiak iazkoak baino hobeak ala txarragoak izan dira?. Galdera honi erantzun nahirik, Kultur Teknikariak jaien gorabeherak aztertzen dituen txostena kaleratu du.



← Jaietan arrakasta gehien duen ekintza, dudarik gabe, sokamuturra da.

Blanka Salegi, Kultur Teknikariaren ustez, aurtengo jaietako partaidetza beste urte batzuetakoa baino eskasagoa izan da eguraldi txarra medio. Dena den, jai egitaraua adin guztietako pertsoneri zuzenduriko ekintzek osatu dutela aipatu du.

Jaietako ekintzarik arrakastatsuenak sokamuturra izan dela adierazten du txostenak. Enbolatuak, berriz, ikuslego handia erakarri arren, partaidetza gero eta eskasagoa dute.

Kultur Teknikariaren usteetan, aurtengo lehen aldiz burutu den "Humor amarillo" frogak oso harrera ona izan du.

Aurtengo jaietan Udalak 16 milioi gastatu ditu eta Blanka Salegiren iritziz inguruko herriei gonbaratuz, Elgoibarkoa aurrekonturik haundienetakoa da. Kultur Teknikariak datorren urterako sor daitekeen edozein proposamen Kultur Etxeko Kultur Sailean aurkez daitekeela jakinarazi du.

HBren balorazioa

Herri Batasuna alderdiak jai egitarauarekin bat ez datorrela agertu du jai buruz egin duen balorazioan. Ertzantzaren jokabidea kritikatu du eta PNV alderdia gaitzetsi du Plaza Handiko musika taldeen kutsu espainolagatik. Era berean, euskal kulturari protagonismoa ez ematea leporatu dio PNV alderdiari. Gaztetxeak buruz, HBk ez du okupazioaz iritzirik eman eta gazte guztiekin hitz egiteko beharra azpimarratu du.

NAVA

Jupresoreak
Jupresoreak
Jupresoreak
Jupresoreak
Jupresoreak

Sta. Ana, 44
Tel 74 44 51

Hertz — **Autobusak**
Rey Quiroga

GIDARIRIK GABEKO AUTO ETA FURGONETAK ALOKATZEN DITUGU

BILKETA-BANAKETA ZERBITZUA:
EIBAR, ERMUA, BERGARA,
ARRASATE, ZARAUTZ, DEBA,
ONDARROA ETA AZKOITIA

PREZIO BEREZIAK KONTSULTA ITZAZU

ERRESERBAK EGITEKO:
TFNOAK: (943) 74.36.50- 54 FAX: (943) 74.38.93

GARAY

HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

MALAPE

11 Larunbata

21,00 OMENALDI AFARIA

Aitor Esnaola, Pablo BArrenetxea
eta Aritza Monasterioren
omenez.

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

**22,00 BANDAREN
KONTZERTUA**

Tokia: Udaletxeko arkupeak

22,30 ZINEA

"Cinema Paradiso"
(Italia 1989)

Zuzendaria: G. Tornatore

Aktoreak: P. Noiret, J. Perrin

Tokia: Plaza handia

Antolatzailea: Ongarri zine Kluba

Z I N E A

"Cinema Paradiso"

Salvatorek, Alfredo izeneko baten heriotzaren berri ematen dion deia jasoko du Siziliatik. Berehala umetako oroitzapenak datozkio gogora. Izan ere horixe da filmeen muina. Bere jaioterrian, Siziliako kostan, zinemako proiektzionistarekin zuen adiskidetasuna kontatuko du filmeak. *Cinema Paradiso* zinearen eta pertsonaia anonimo horren erretratu xamurra da: erlijio zentsura, aire libreko zinea, zinematokien krisia...

Z I N E A

12 Igandea

**8,30 ARLABAN-URBIA
TRABESIA**

Irteera tokia: Plaza handia

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

17 Ostirala

**19,00 "EKin EUSKARARI"
ERAKUSKETA**

Gaia: Euskararen gizarteratzea

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Udaleko Euskara
Batzordea

Zabalik hilaren 26ra arte



BATXILERGO INSTITUTUAK

eta

LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTUAK



irailaren 7tik-13ra bitartean

ZABALIK izango dute

MATRIKULAZIO EPEA

Etxebizitzak

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5.
74 35 09 - 74 31 66

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpoko aldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso ditzaketenezat aproposa.
Tel: 74 29 05

Pisua alokatzen dut Santa Ana kaleko 7 zenbakian. **Deitu 74 01 93 - 74 26 88** Belen.

Lana

Neska euskalduna naiz eta haur bat zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago.
Deitu 74 07 30

Udan klase partikularrak emateko prest nago OHOKo haurrei. Magisteritza tituloa eta ingenieritza ikasketak ditut.
74 28 53 Alazne.

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak... egiteko prest nago. Euskeraz badakit.
Ainhoa 74 16 89

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak.
74 41 94. Sanchez.

COU, FP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet.
Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzioentzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

Salerosketak

Automodelismoko kotxea (4 WD KYOSHO) eta emisora (SANWA, oso berria)saltzen dut.. Erregaluz: 3 bateria, errobera joko bat, bi kargadore (bat motela eta bestea azkarra), e.a....
74 03 92 eguerdian. 74 04 65 gauz. Dani.

YAMAHA TZR-80 c.c. saltzen dut. Egoera onean.
Deitu lan orduetan. 11 33 32

Ilara bateko patinak salgai. Sky tankerako botak dauzka. 36-37 zenbakikoak. Ikasteko aproposa. **74 02 09 Ainhoa**

Opel Midi, 4x4 SS AL bat saltzen dut. Ohe egiten da.
Deitu 74 28 56 gauz.

TOYOTA LAN CRUISERA SS -AF bat saltzen dut.
Deitu lan orduetan 74 13 33

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neska-uren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel.etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. **74 12 95 Pello.**

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan.
94-6201918 ra (Gorka).

65 litroko Aldus Everest motxila eta piolet bat saltzen dut. **74 25 63 Josu**

Umeentzako bizikleta eta uretako paipa bat salgai, biak prezio merkean. **Tel: 74 26 91**

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N
74 14 80 Javi

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Kontaktuak

Datorren astelehenean Mikel Alberdi presoaren urtebetetzea da. Zorionak Mikel! Inork zoriondu nahi bazenute hona hemen bere helbidea: Prision Provincial Cordoba Modulo 2
Apd 479 Cordoba.

Eraztun bat aurkitu dut.
Deitu 74 22 33

Etxe bat alokatu nahi dut. Altzariak baditu hobe.
Ainhoa 74 13 61 7etatik-9etara

UNIFORM

JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFOM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak

10 URTEKO GARANTIA

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitarte, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94



“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR